



GARI GARAIALDE

Agintariak bertan zirela egin zen atzo zubiaren zabaltze ekitaldia.

Orioko zubia, guztiz eraberritua, zabalik da atzo arratsaldetik

Zortzi hilabete luze behar izan dituzte obra hori egiteko

Erredakzioa / Donostia

Zaharturik zegoen Orion N-634 errepideko zubia. Haren egitura metalikoa oso hondatuta zegoen, eta ondorioz, joan den udan zirkulazioa mugatu behar izan zuten. Irailan, berriz, konponbidea bilatu nahian, eraberritzeko obrak esleitu ziren, zubiaren taula aldatzea erabaki baitzen. Atzo, 18:00etan, berriz ireki zuten zubia zirkulaziorako.

LANA galanki egin behar izan dute Orioko zubi berria egin aritu diren langileek. Gipuzkoako Foru Aldundiko informazio iturriek aditzera eman dutenez, obra handia izan da. Izan ere, hasiera batean zubiaren egitura metalikoa konpontzea nahikoa izango zela pentsatu zuten, baina zubiaren taula aldatu egin behar izan dute guztiz.

Zubi zaharraren pilare eta istribuak ez dituzte amildu, haien gainean egin dute lan. Hala ere, mikropiloteen bidez sendotu behar izan dituzte. Gainera, uste baino egoera txarragoan zeuden, eta ondorioz zimenduak sendotzeko lan handia egin behar izan dute, uste baino gogorragoa.

Zimenduen gaineko taula berria egiteko lanak, berriz, hiru alditan banatu zituzten. Aldi bakoitzean bi bao zahar bota eta beste bi berri egin ziren. Lan horretan bederatzi aste eman zituzten, aldi bakoitzak hiru asteko

buruhauste eta nekeak baitzekartzan.

Zubi berriaren taula 10,50 metro zabal da, eta horrek errepide eta espaloitaxuzkoak egiteko modua zabaldu duela azaldu dute Gipuzkoako Foru Aldundiko informazio iturriek. Zubi berriak, halaber, lehengoa baino ertz estuagoa du eta horrek ibai-ko galiboa hobetuko duela diote egileek.

N-1 errepidean arazoak izan ziren atzo Itsasondoko parean

ITSASONDOKO eta Legorretako tunelen artean (Gipuzkoa), N-1 errepidean, Irungo bidean, zirkulazio arazoak izan ziren atzo goizean. 07:50 aldera kamioi batek ezbeharra izan zuen eta errepide erdi-erdian geratu zen, bi karrilak hartzen zituela eta gainerako ibilgailuei bidea eragozten ziela.

Kamioi gidariak lagun-

Agur behin-behineko zubiari

Obra hauek egin ahal izateko behin-behineko zubi bat jarri behar izan zuten. Otsailaren hasieran zabaldu zuten eta azken hilabeteotan obra hauek direla-eta bertan sortu diren zirkulazio arazoek lekuko izan da. Oinezkoentzat ere pasabide bat egin zuten. Atzo geroztik, ordea, behin-behineko konponbide horiek ez dute zentzurik, zubi berria zabalik baitago.

Azken orduan, obra honetan Udalaren eta Aldundiaren arteko akordio bat lortu da eta elkarlanean Oria ibaiaren eskuin aldeko bideko galiboa gehitu dute. Zubiko baranda eta farolak ere akordio horren emaitza dira.

tza behar izan zuen ibilgailua bertatik mugitzeko, eta goizeko 10:00ak alde arte ez zuten errepidea libre uzterik izan.

Ondorioz, goiz parte osoan zirkulazio arazo handiak izan ziren. Ertzainek, egoera pixka bat arindu nahian, N-1 errepide zaharretik bideratu zuten zirkulazioa ezbeharra jazo eta berehala,

Zintzilik daude jada bandera urdinak euskal hondartzetan

Atzo banatu zizkien Patxi Ormazabal sailburuak kalitatearen ikurra lortu dutenei

Erredakzioa / Donostia

EUSKAL HERRIKO 11 hondartzatan eta portu batean jarriak daude bandera urdinak atzo geroztik. Uren kalitatea, garbitasuna eta zerbitzuen egokitasuna saritzen du kalitate ikur horrek, eta atzo banatu zien Patxi Ormazabalek, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingugiro sailburuak.

Aurten bandera urdina lortu dute Bizkaiko bederatzi hondartzak eta Gipuzkoako bi hondartzak eta portu batek, Getariakoak hain zuzen ere. Horregatik erabaki zuten leku hori banaketa egiteko. Aurrez ere, Getariako portuak bazuen kalitatearen ikurra, eta zaharra mastatik kendu eta berria jarrita burutu nahi izan zuten ekitaldia.

Getariako portuan ez ezik, herri horretan Malkorbe hondartzan ere jarri dute oihal urdina. Zumaia-ko Itzurunen ere zintzilik da jada bandera berria.

Bizkaian, bederatzi hondartzak lortu dute aurten kalitatearen ikurra: Getxoko Azkorri, Sopelako Barina-

txe, Plentzia, Gorliz, Ea, Bakio, Bermeoko Aritxatu, Ibarrangeluko Laga eta Mendexako Karraspio.

Aurten Espainiako Ingurugiro Hezkuntzarako Fundazioak banatu ditu bandera urdinak, Europaren babesik gabe. Izan ere, ikur horiek emateko prozedurari buruzko salaketak bitarteko, Europako Batzordeak aurten banderarik ez banatzea erabaki du. Hortaz, herrialdeetako adarrek euren kabuz egin dute kanpaina.

Espainia barruan zenbait erkidegok salaketa horiekin bat egin bazuten ere, Euskal Autonomia Erkidegoak kanpaina sustatzea erabaki zuen. Eusko Jaurlaritzaren arabera, bandera urdinaren kanpaina euskal kostaldearen kalitatea hobetzen laguntzen du nabarmen.

Euskal Herriko kostaldetan, Bizkaian eta Gipuzkoan bakarrik daude banderak. Lapurdiko hondartzetan sekula ez dituzte oihal horiek zintzilikatu. Aurten ere ez dute banderarik, ikur hori lortzeko hautagaitzarik inork aurkeztu ez zuelako.



GARI GARAIALDE

Bandera zaharra mastatik kendu eta berria jarrita burutu zuten atzo banaketa ekitaldia Getarian.